

Hitzarmena berritu dute Labayruk, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Aldundiak

Ikastegiak 260.000 euroko diru laguntza jasoko du, hizkuntza eta literatura arloetako lanak egiteko

IRUNE BERRO
Bilbo

Labayru Ikastegiak hitzarmena berritu du Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin, eta, ondorioz, 260.619 euroko diru laguntza jasoko du 2008an. Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak 179.000 euro emango dizkio ikastegiari, eta Bizkaiko Aldundiak, 81.619 euro. Labayruk euskara sustatzeko eta bizkaiera ikertzeko eta zabaltzeko erabiliko du diru hori. Atzo sinatu zuten hitzarmena Ander Manterola Labayruko zuzendariak, Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta Belen Greaves Bizkaiko Kultura diputatuak.

Zehatz-mehatz, honako egitasmo hauek garatuko ditu Labayruk, orain arte eginiko bideari jarraituta: lexikografia, bizkaiera literatura eta herri literatura aztertu eta landuko ditu; Bizkaiko lekuen izenen eta deituren corpusa osatzen segituko du; *Idatz & Mintz* literatura aldizkariaren zerbaki berriak plazan jarriko ditu; eta *Labayru gaur* Interneteko buletina zabaltzen jarraituko du.

Baztarrikak adierazi duenez, «euskara batua eta euskalkiak osagarriak dira». Areago, «euskara batua euskalkien iturri zaharberritutik edan eta elikatu behar du», sailburuordearen arabera. Horregatik da garrantzitsua hitzarmena Baztarrikarentzat.

Diru laguntza baliatuta, euskal

lexiko corpusaren datu basea gaurkotu eta osatuko du Labayruk. Eta horren barruan, hiru hiztegi hobetu eta eguneratuko ditu; *Eskola hiztegia*, *Esamoduaren hiztegia* eta *Labayru hiztegia*, hain zuzen. Herri literatura eta herri euskara arloetan, hainbat lan katalogatu eta digitalizatuko dituztela esan dute Labayrukoek. Eta herri ipuinen bildumaren barnean, edizio didaktikoak argitaratuko dituztela. Orain arte bezala, hizkuntza arloko aholku eskaerei erantzuna emango die Bizkaiko irakastegiak. Bestalde, literatura arloko ikerketak burutuko ditu, testuak atondu eta argitaratzeko. Bizkaierazko testu zaharren bilduma ere egingo du.

ARGITALPEN BERRIAK. Hain zuzen, literaturaren eta bizkaierazko testu zaharren esparruetan eginiko ikerketen eta lanaren emaitza dira ikastegiak berriki plazaratu dituen liburuetako asko. *Bizkaia begietan (1913-1928)* da horietako bat; Ebaristo Bustintza *Kirikiño*-ren testuak jasotzen ditu argitalpenak; Javier Pereak aukeratu ditu eta Miren Atutxak egin du sarrera. Iratxe Ormatzak, bestalde, Hego Amerikara eginiko bidaia kontatu du *Hegoak* liburuan.

Hori ere Labayruk jarri du plazan, Jabier Kalzakortaren *Dantza-kopla zaharrak* bezala. Dantzarako koplak bildu ditu idazleak liburu horretan. Oscar Alvarezek eta Alberto Irigoienek Ignazio Argiñaren erbestean idatzitako bertsoak jaso dituzte, *Isla Malako haritza*. Ignazio Argiñaren *Otsotorenaren bizitza eta lanak (1909-1997)* obran. Eta Ainara Apraizek eta Nagore Etzebarriak Juan Ignazio Astigarragaren 90 sermoi bildu dituz-



Jabier Kalzakortaren *Dantza-kopla zaharrak* argitaratu berri du Labayruk. ZALDIERO

te Juan Ignazio Astigarraga (1783-1854), *Sermoitegia*. XVIII. eta XIX. mendeetako euskal oratoria sakratua liburuan. Idoia Altzibarrek *Hurbildu Etzebarri*a Bizkaiko herriko toponimia eskolako umeei

eta gurasoei gerturatzeko liburu eta CD-ROMa ateratu ditu Labayru- rekin. Baita *Lamiak* eta *Uratsarena* umeentzako ipuinak ere. *Idatz & Mintz* aldizkariaren 33. zenbakia ere kalean da.

Moneok diseinatu du Aragoiko arte zentroaren eraikin berria

ARKITEKTURA = Rafael Moneo nafar arkitektoak diseinatu du Aragoiko (Espainia) Arte eta Natura Zentroaren eraikin berria. Bilera aretoa eta biltegia izango ditu, eta egungo eraikinari lotua egongo da.

Zetazeak taldeak izen bereko obra emango du gaur Bilbon

ANTZERKIA = Zetazeak taldeak Bilbo-ko San Frantziskoko auzo etxean estreinatuko du gaur, 19:30ean, *Zetazeak* obra. Zetazeoen inguruko ikerketa dago lanaren oinarrian, animalia horien soinuak.

Goenaga, Agirre eta Gabiria Max sarirako hautagai

ERREDAKZIOA

Arte eszenikoen arloko Max sariak jasotzeko hautagaien berri eman zuten atzo Madrilen. Euskarazko antzerki egilerik onenaren Max saria jasotzeko, hiru sortzaileen obrak sailkatu zituzte: Aitzpea Goenagaren *Ni ez naiz txotxolo*; Maite Agirre, Ines Martínez de Iturrate eta Santiago Ortigaren *Haur kabareta*; eta Patxo Telleria, Julen Gabiria eta Jose Antonio Portillok

Bilboko Arriagarako prestatutako *Abentura antzokian* lana. Max saria, horrenbestez, hiru lan horietako baten egileek jasoko dute. Iaz Maite Agirrek lortu zuen, *Neska politikak, artasoro alaiak* obragatik. Bestalde, Alfonso Sastre ere antzezlan moldaketarik onenaren Max sarirako hautagaia da, *Marat-Sade* lanagatik. Otsailaren 4an egingo dute gala, Sevillan (Espainia).

30. URTEURRENA

30 urte proposatzen bilatzen aurkitzen

30 urte jolasten harritzen hunkitzen

30 urte ikasten ezagutzen hazten

30 urte kultura bizitzen, gozatzen

kultura oparoa zorion aroa